

Hiribiltzen

Ibiltzea topagune. Inguruko errealitateak ezagutzeko urratsa

Maitane Aldanondo. Hiribiltzen

Imajina ezazu munduari bira ematea. Hiri berrietan ibili, jendea ezagutu, bizipenak partekatu... Bidaia aberasgarria litzateke, pentsamoldea irekitzeko eta ikuspegia aldatzeko balio duten bizipen horietako bat. Aipatu onurak izateko, ordea, ez da beti beharrezkoa bizitokitik mugitzea, nahikoa da ingurukoekiko jarrera apur bat zabaltzen ausartzea. Begi berriekin ikustea ingurua. Kale berak zapaltzen dituzten beste batzuen tokian jartzea, haien oinetakoak janzea. Zehazki proposamen horixe luzatu diegu donostiarrei eta inguruan bizi direnei Hiribiltzen egitasmoarekin. Proiektuaren izena hiru hitzen baturak osatzen du -hiria, ibiltzen, biltzen- eta horrek zehazten du bere oinarria ere: partekatutako paseoak sustatzea Donostiaren inguruan hitz eginez. Izan ere, hirian bizi eta hiria bizitzeko moduak ugariak dira, nahiz eta askotan urrutiko sentitu edo haietara hurbiltzerik ez izan. Horregatik, Hiribiltzen Donostiak batzen dituen askotariko errealitateek elkar ezagutzeko aukera izatea nahi dugu, hauen arteko distantziak laburtu eta saiakera egitea erraztuz. Topaketa samurtzeko, ezezagun batekin eguneroko ekimen bat partekatzea proposatzen dizuegu, kasu

honetan, paseo bat. Zure Donostia erakutsi iezaiozu bidaideari eta berea nolakoa den entzun ezazu. Adibidez, etorri zinetenok bertakoei kontatu nola hartu zintuzteten edo bertakook iritsi berriari erakutsi jaioterria. Iritzietan baino, norberaren bizipenetan oinarritutako solasaldiak eragin nahi ditugu. Hain zuen ere, ikuspuntuak eztabaida iturri baitira askotan, gatazka sorburu maiz; bizipenak, aldiz, norberarenak dira, bereziak eta berezkoak. Komunean duzuen hiria ardatz hartzea planteatu arren, izotzaldia urteaz iradokizuna besterik ez da. Inork ez du hizketaldia gidatzen zein arautzen. Horrez gain, besteen konpainian ibiltzean ongizate fisiko, sozial eta emozionalean dituen onurak ere nabarmendu nahi ditugu. Ibiltzea ariketa oinarritzkoa da, patxadaz, mantso, edonork egin dezakeena sasoi edo adina muga izan gabe. Ezagun da, halaber, adimenarentzat ona dela, pentsatzen laguntzen duelako. Antzinako filosofo greziarrek eta idazle nahiz sortzaile askok nabarmendu dute ideia berriak pizteko eta ikuspegiak zabaltzeko duen gaitasuna.

“Parte hartzea sustatzeko eta herritarroei urratsa egiten laguntzeko, talde erronka moduan antolatu dugu: denon artean munduari bira ematea 84 egunean Donostiatik irten gabe”

“Gureak denon artean, garena garena, edonongoak, emaitza komun bat lortzen saiatzea proposatzen du”

Donostiatik irten gabe

Parte hartzea sustatzeko eta herritarroei urratsa egiten laguntzeko, talde erronka moduan antolatu dugu: denon artean munduari bira ematea 84 egunean Donostiatik irten gabe. Hau da, 40.075 kilometro osatzea apirilaren 6a eta ekainaren 29a bitartean hiri barnean egingako paseoen distantziak batuz. Kontaketa gauzatu ahal izateko itzazteko pasealekuan, Sagues-Pasealeku Berria-Haizearen Orazia, detektagailudun sei baliza jarri eta ukipen txartelak egin ditugu.

Partaide bakoitzak txartel bat erosi behar du Donostiarekin duen loturaren arabera. Hau da, bertan jaio eta bizi zaretenok, urdina; bertan jaio gabe zuen burua donostiarizat duzenok, berdea; bertan jaio edo bizi gabe hiria zuen bizitzaren parte duzenok, morea; eta azkenik, loturarik ez duzenok, horia. Harreman horrek badu subjektibotasun zantzu bat norberaren identitateari lotua eta bakoitzak

hauta dezake non kokatu, bere burua sentitzen edo ikusten duen moduren arabera.

Topagune izateko nahia nabarmentzeko derrigorrezkoa da bakarrik ez ibiltzea. Baliozko paseoak izateko bikotean edo taldean egin behar dituzue eta, gainera, kideek kolore desberdineko bi txartel, gutxienez, izan behar dituzue. Hau da, ezberdinek elkarrekin paseatu behar duzue eta ibilbidean igarotako detektagailu bakoitzean txartela pasa. Era honetan, tarte guztien kilometroak batuko ditugu.

Ardatz nagusia jatorria bada ere, ez da bakarra. Izan ere, aldagai askok molda baitezake norberaren errealitatea. Horregatik, norbanakoez gain, elkarteei ere luzatu diegu gonbita. Batzen dituen asmo edo ezaugarri hori gainontzeko herritarrekin partekatze abagune bat izan nahi dugu, herritarrekin edo beste eragile batzuekin paseatu eta sareak ehuntzen has zaitezten.

Objetivo

Hiribiltzen es una experiencia con forma de reto colectivo: dar la vuelta al mundo sin salir de Donostia en los 84 días (2.016 horas) que hay entre el 6 de abril y el 29 de junio, sumando las distancias recorridas en miles de paseos por parejas o grupos formados por “diferentes”.

Donostia-San Sebastián 2016

Walk+Talk (ibili + hitz egin) ekimenak gero eta hedatuago daude. Hiribiltzenen bereizgarria forma eta xedea dira, sistema, berriz, Ermuko Hiribi proiektuan oinarritzen da. Hau bezala, Patxi Galarragak eta Miren Vivesek sustatu dute, baina ongizatearen ardatzari lotuago dago. Elkarbizitzari begirako ezaugarriak gehitu genizkion DSS2016EUren testuingurura egokitzeko. Izan ere, Hiribiltzen Energia Olatuak programaren parte da. Hain zuzen ere, herri epaimahai batek aukeratu zuen Topaguneak deialdi berezian. Bertan ezberdinen arteko lotura diren egitasmoak balioetsi eta diruz lagundu zituzten.

Esan bezala, gureak denon artean, garena garena, edonongoak, emaitza komun bat lortzen saiatzea proposatzen du. Pausoz pauso, norberak bere aletxoak ekarriz eta, aldi berean, onura jasoz. Helburuak asmo handikoak direnik ezin uka, baina izugarri aberasgarriak ere izateak saiatzeko bultzada eman digu. Denon urratsak eta hitzak behar ditugu lortzeko. Eta zu, ba al zatoz?

